



# 2024KO LEHEN HIRUHILEKOKO EMAITZAK

2024ko maiatzak 9

# LEGE OHARRA

## DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUEKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

# AURKIBIDEA

1. 2024ko 1HHko DATU  
AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA INFORMAZIOA
3. JASANGARRITASUNA
4. AURREIKUSPENAK
5. ERANSKINAK



 / 1

# 2024ko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK

## KONTRATAZIOA

444 M€  
-% 42

vs 2023ko 1HH

## ESKARI ZORROA

13.636 M€  
-% 4

vs 2023/12/31

## SALMENTAK

1.008 M€  
+% 6

vs 2023ko 1HH

## EBIT

47 M€  
+% 9

vs 2023ko 1HH

## EBIT mj

% 4,7  
ehuneko +0,1 p.

vs 2023ko 1HH

## EMAITZA GARBI EGOZGARRIA

23 M€  
+% 16

vs 2023ko 1HH

## JASANGARRITASUNA

MSCI: AA (hobekuntza A-tik)

Kontratazioa neurritsua izan da lehen hiruhilekoan, eta *Book-to-billa* = 0,4koa. Dena den, aurreikuspenak onak dira ekitaldiko gainerako aldirako.


Eskari-zorroak aldi baterako murrizketa izan du, eta oraindik ere maila altutan dago.

Salmenten igoera eta emaitzaren hobekuntza aldi honetan.

MSCIren indizean, ESG kalifikazioak goranzko berrikusketa jaso du eta AAn kokatu da.



**2024RAKO, HAZKUNDEARI, ERRENTAGARRITASUNARI, KUTXARI ETA JASANGARRITASUNARI LOTUTAKO AURREIKUSPENAK MANTENTZEN DITUGU**

# KONTRATAZIOA NEURRITSUA IZAN DA LEHEN HIRUHILEKOAN, BAINA AURREIKUSPENAK ONAK DIRA EKITALDIKO GAINERAKO ALDIRAKO



**Lehen hiruhilekoko zifrak ez ditu jasotzen ondoren esleitutako eta iragarritako kontratuak, 350M € inguruko balioa dutenak.**

**Horrez gain, esleipen fase aurreratutan dauden proiektuen bolumena ere handia da eta horiek epe laburrera begira gauzatzeko probabilitatea ere handia da.**



**Btb=0,4** Talde osoan  
 Btb=0,3 trenen segmentuan  
 Btb=0,9 autobusen segmentuan

Trenen segmentuan, kontratazio nagusiak honako hauei lotuta daude:

- Aldiriko trenen hornidura Qbuzz-erako.
- Hainbat geografiatan, mantentze-lanetarako kontratuak berritzea.
- Seinaleztapen-sistemak.

Autobusen segmentuan, nabarmendu beharrekoa da **zero isurpeneko** (autobus elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak) **autobusen kontratazio handia**; izan ere, kontratatutako autobus guztien % 91 izan dira era horretakoak.

Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da **Europakoa dela kontratazio bateratuaren % 90.**

Ekitaldian zehar CAFek eskaintza komertzialak eskainiko dituen **pipelinearen bolumenak historikoki altuak izan diren mailak lortu ditu.**

## 2024ko 1HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak

### / ALDIRIKO TRENAK QBUZZ-ENTZAT (HERBEHEREAK)

- Civity plataformako 3 kotxeko aldiriko 10 tren.
- Operadorea First Group taldekoa da (CAFek lehendik ezagutzen duen bezeroa).
- CAFen ETCS seinaleztapen-sistemarekin ekipatutako ibilgailuak.



### / ZERO ISURPENENKO AUTOBUSAK ALEMANIARAKO ETA FRANTZIARAKO

#### HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK KOLONIARAKO (ALEMANIA)


- 20 ibilgailu; haietako 9 12 metrokoak, eta beste 11 ibilgailu, aldiz, 18 metrokoak.

#### HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK PARIS ESKUALDERAKO (FRANTZIA)

- 12 metroko 22 autobus Île-de-France Mobilités operadorearentzat.
- **Zero isurpeneko autobusen lehen kontratua Frantzian.**



# ZORROAK ALDI BATERAKO JAITSIERA IZAN DU, BAINA ORAINDIK Btb ≥1EKO AURREIKUSPENA DU EKITALDI OSORAKO



Eskarien zorroa **pixka bat gutxitu da** kontratazioa baino handiagoa izan den gauzatzearen ondorioz.

Eskarien zorroak **etorkizuneko jardueraren** ikusgarritasun handia ematen du kutxaren sorkuntzari, hazkunderari eta errentagarritasunari dagokienez, eta aurreikuspenekin bat dator.

Zorro horrek **ez ditu biltzen** 2024ko 1HHaren amaieraren ondoren esleitutako proiektu hauek:

- 354 autobusen hornidura Erroma hirirako.
- 20 metroko ibilgailuen hornidura Oslo hirirako.

Esleipen horien guztizko balioa **350M €** ingurukoa da bi bezeroek aktiba ditzaketen aukera ugariak kontuan hartu gabe.

<sup>1</sup> Ratioa 2024/03/31n, 2023an izandako salmenten arabera kalkulatuta.





**/ 2**  
**FINANTZA**  
**INFORMAZIOA**

# SALMENTEN IGOERA ETA EMAITZAREN HOBKUNTZA URTEKO LEHEN HIRUHILEKOAN

(milioi eurotan)	2023ko 1HH	2024ko 1HH	Ald. 2024ko 1HH/2023ko 1HH
<b>NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA</b>	<b>952</b>	<b>1.008</b>	<b>+% 6</b>
<b>USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT</b>	<b>43</b>	<b>47</b>	<b>+% 9</b>
<b>EBIT Marjinaren %</b>	<b>% 4,6</b>	<b>% 4,7</b>	<b>-</b>
Finantza arloko emaitza	(13)	(11)	-% 15
Finantza-sarrerak	3	6	+% 120
Finantza-gastuak	(17)	(17)	+% 1
Trukeko edo kanbioko aldeak	2	1	-% 49
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(1)	(1)	-% 11
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundearen emaitza	1,9	1,0	-% 48
<b>ZERGEN AURREKO EMAITZA</b>	<b>32</b>	<b>37</b>	<b>+% 15</b>
Irabazien gaineko zerga	(11)	(12)	+% 9
Zergen ondoren, emaitza garbia	21	25	+% 19
Interes minoritarioak	0,5	1,2	+% 126
<b>ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA</b>	<b>20</b>	<b>23</b>	<b>+% 16</b>

**Salmentak % 6 igo dira** hiruhilekoan.

EBITak salmentek baino gehiago egin du gora eta **errentagarritasunak goranzko progresioa erakutsi du.**


Zergen aurreko emaitzaren bilakaera positiboagoa da (+% 15) **finantza-emaitzaren hobekuntza** dela eta. Hobekuntza horrek agerian utzi ditu honako bi datu hauek: alde batetik, finantza-kostuari eutsi egin zaio eta, bestetik, altxortegiko soberakinak modu positiboan kudeatu dira.

Aurrekoaren ondorioz, **emaitza garbia 23M €-koa izan da**, beraz, 2023ko 1HHko datuekin alderatuta, **igoera % 16koa** izan da.

# SALMENTEN IGOERA AURREZ IKUSITAKO ERRITMOAREN ARABERAKOA DA


## SALMENTAK

### / BATERATUA




**Salmentek bilakaera ona izan dute** tren arloko zorroaren exekuzio gero eta handiagoak lagunduta. Aldiz, autobusen negozioaren salmentek goranzko kurba izango dute ekitaldiaren amaierara arte.

### / TREN ARLOA



Tren arloko zorro handiaren gauzatzeak **bi digituko hazkundera** eragin du segmentu horretako salmentetan.

### / AUTOBUSAK




**Urte arteko alderaketak emaitza negatiboa ematen du** orduko bufferra gutxitzeko asmoz (osagaien krisiaren ondorioa) 2023ko 1HHan entregatutako unitateen kopuru handia dela eta<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Zero isurpeneko autobusen egonkortasuna bidalketa-mixean, %55 inguruan.


# ALDI HORRETAKO EMAITZAREN GORANZKO BILAKAERA

## EMAITZA

EBIT (M€) eta  
EBIT marjina (%)



EMAITZA GARBIA,  
INTERES  
MINORITARIOEN  
ONDOREN (M€)



Taldearen EBITak % 9 egin du gora; aldiz, emaitza garbiak % 16ko igoera izan du.

Trenen segmentuan oraindik ere eragina dute honako hauek: kostuen igoera jasan duten proiektuen gauzatzea eta kudeaketako informatika-sistema berriak abian jartzeak izandako efektu iragankorra.

Bestalde, autobusen segmentuak bilakaera positiboa izaten jarraitu du, aurrez ikusitakoa betez.

An aerial photograph showing a landscape with a road, railway tracks, and greenery. The road is a two-lane asphalt road with a dashed white center line. To the left of the road are railway tracks with gravel bed. The surrounding area is lush green with trees and fields. The text '3' is overlaid on the image, with a red diagonal slash to its left.

**/ 3**

# JASANGARRITASUNA

# HOBKUNTZAK KALIFIKAZIOAN ETA KONPROMISOAK BETETZEA

## CAF-ek AA KALIFIKAZIOA JASO DU MSCI ESG-N

/ Enpresak jasangarritasun-indize horretan kalifikaziorik onena lortu du, urtebetean baino gutxiagoan A kalifikaziotik hasita gora egin ondoren.

/ Jasangarritasuna da CAF Taldeko egungo Plan Estrategikoko lau ardatz estrategikoetako bat.

MSCI ESGk enpresen errendimendua neurtzen du honako faktore hauen arabera: ingurumena, gizartea eta gobernu korporatiboa (ESG, ingelesezko laburduratan).

CAF Taldearen kalifikazioa hobetzen lagundu duten faktoreetako batzuk dira, hain zuzen ere, enpresaren ingurumeneko, gizarte arloko eta gobernantzako jardunbideek izandako balorazio hobea.



## CAF-EK FINANTZAKETA BERDE ETA JASANGARRIKO LEHEN FINANTZAKETA ESPARRUA ARGITARATU DU

/ CAFek Finantzaketa Berde eta Jasangarriaren lehen Esparrua argitaratu du. Lanketa hori Bigarren Alderdiaren Iritzia emateko hornitzaile batek balioztatu du



Esparru horri esker, CAFek honako hauek egin ahal izango ditu:

1. CAFek erabiltzen dituen finantza-produktuak kalifikazio berdearekin edo jasangarriarekin izendatzea eta, horren bidez, eskaera modu potentzialean handitzea.
2. Zorraren kostua gutxitzea.
3. Ekonomia deskarbonizaturako trantsizioan enpresak duen lidergoa baieztatzea merkatuaren aurrean.

## S&P INDIZEAREN ARABERA, CAF ESPAINIAKO 30 ENPRESA JASANGARRIENEN ARTEAN KOKATU DA

/ S&Pren Mundu Mailako Jasangarritasuneko 2024ko Urtekarian gehitu dute CAF.

### Sustainability Yearbook Member

S&P Global Corporate Sustainability Assessment (CSA) Score 2023

S&P Global CSA Score 2023: XX/100  
Score date: February 7, 2024  
The S&P Global Corporate Sustainability Assessment (CSA) Score is the S&P Global ESG Score without the inclusion of any modelling approaches. Position and scores are industry specific and reflect exclusion screening criteria. Learn more at <https://www.spglobal.com/esg/csa/yearbook/methodology/>

S&P Global



S&Pren Mundu Mailako jasangarritasuneko Urtekariaren helburua da jasangarritasun arloko indarguneak erakutsi dituzten enpresak aitortzea.

2023ko Jasangarritasun Korporatiboaren Ebaluazioan (CSA) aztertutako 9.400 enpresa baino gehiagotatik, 759 enpresa bakarrik gehitu dituzte Jasangarritasuneko 2024ko Urtekarian. Hain zuzen ere, CAF Taldea da horietako bat.





/ 4

AURREIKUSPENAK

# EZ DA ALDAKETARIK IZAN 2024RAKO EGINDAKO AURREIKUSPENETAN

/ 2024<sup>1</sup>

Book-to-bill	>	$\geq 1$ Kontratazio selektiboa
Salmentak	>	+% 10 ingurukoa 2023 urtearekiko
EBIT Emitza garbia	>	Errentagarritasunaren hobekuntza 2023 urtearekiko
Dibidendua	>	Emitzen bilakaerarekin bat dator
FZG/EBITDA ratioa	>	Egonkortasuna 2023 urtearekiko
JASANGARRITASUNA	>	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

<sup>1</sup> Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.



A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on laptops and tablets. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused environment. The text '5 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.

**5**  
**ERANSKINAK**

# 2024KO URTARRILA-MARTXOA ALDIKO ESKARI ZORROAN SARTUTAKO ETA IRAGARRITAKO KONTRATUAK

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK
2024ko 1HH	Qbuzz	Herbehereak	Trenak / Tren-ibilgailuak	Civity aldiriko 10 trenen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez
2024ko 1HH	Kolonia	Alemania	Autobusak	Hidrogenozko 20 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez
2024ko 1HH	Île-de-France Mobilités	Frantzia	Autobusak	Hidrogenozko 22 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez

# ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2023ko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta sozietatearen webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) dago irakurgai, 11. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.

**CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE  
FERROCARRILES, S.A. Y  
SOCIEDADES DEPENDIENTES QUE  
COMPONEN EL GRUPO CAF  
(CONSOLIDADO)**



**INFORME ANUAL 2023**



FEBRERO 2024

TRANSPORT SYSTEMS  
TRAINS  
BUSES  
SIGNALLING  
COMPONENTS  
SERVICES

**Your Way**  
to Future Mobility

**TRUST  
IN MOTION**